

## **GLOBALIZAZIOA ETA IDENTITATE KOOPERATIBOAREN BILAKAERA. ARRASATEKO KOOPERATIBA ESPERIENZIA ARO ALDAKETAREN AURREAN**

**Tesiaren egilea:** Joseba Azkarraga Etxagibel

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Soziologia

**Tesi-zuzendaria:** Imanol Zubero Beaskoetxea

**Tesiaren laburpena:**

Aro-aldaketa bat bizi dugu eta eragile kolektibo zein indibidual guztiak egokitu behar dira baldintza soziohistoriko berrietara. Behin eta berriro entzuten da mundua aldatzen ari dela, sakon eta arin. Arrasateko Kooperatiba Esperientzia (AKE) leku egokia da munduaren zenbait norabide ikuskatzeko, globalizazioa Euskal Herriatik hausnartzeko, globalizazioaren aurrean desafioak zeintzuk diren ikusteko, eta, baita ere, gogoeta egiteko Mendebaldeak garatu duen Modernitateari eta zibilizazio-patroiari buruz.

AKE ez da soilik eragile enpresarial-ekonomikoa, ez da soilik Euskal Herriko lehen enpresa-taldea. Kultura, identitate, biziera eta zentzu-gorputz baten eramaile den subjektu kolektiboa ere bada. Subjektu horrekin zer gertatzen ari den aro-aldaketa bat bizi dugun honetan, horixe izan da gure sakoneko galdera. Barne-begiratu da proposatzen duguna, amets hura zertan den ikustea. Horretarako, hainbat kooperatibistarekin izandako solasaldiak baliatu ditugu.

Ikuspuntu zehatz batetik hurbildu gara fenomeno kooperatibora. Kooperatibajarduerak bi arrazionaltasunen arteko oreka bilatzen du; bestela esanda, bi bulkadak zeharkatzen dute fenomeno kooperatiboa. Bata arrazionaltasun ekonomiko-instrumentala da: merkatuan arrakasta lortzea du helburu, ondo egokitzea joko-zelai horren arauetara. Bestea berriz, balore-arrazionaltasuna. Horren helburua lehen aipatutako arrazionaltasuna nolabaiteko humanitatearekin uztartzea da, zenbait baliorekin bateratzea: printzipio demokratikoekin, komunitatea zerbitzatzea oinarri duen etika ekonomikoarekin; finean, etika komunitario batekin. Bigarren ikuspegi honetatik, kooperatibismoa zentzu-komunitatea da, komunitate etikoa.

Helburu orokorra honela laburbil daiteke: Arrasateko Kooperatiba Esperientziak bere identitatea, eta kultura kooperatiboa, nola egokitzen diharduen globalizazioak eskatzen dituen baldintza soziohistoriko berrietara. Hiru begiratu aurki daitezke lan honetan: atzoko zentzuak, gaurko ajeak eta biharko erronkak; eta hiru lurralde zeharkatu ditugu horretarako.

### **a) Lurralde teorikoa**

Gizarte oro esanahi multzo bat da, irudikapen kolektiboz osatutako esanahimundu bat, araez eta agindu moralez mamitutako imaginario bat, sinesmenez eta sentimendu kolektiboz fabrikatutako eraikina. Hauxe da gure abiapuntuko

ikuspegia: osagai sinbolikoen sare horrek osatzen du gizartea, Durkheim-ek ederki azaldu zigun moduan. Horrek guztiak gizarte bateko "sistema kulturala" gorpuzten du, gizarte horretako egituratze sinbolikoa, *gutasun* bat. Esan dugun moduan, kooperatiben unibertsoa ere horixe da: zentzu osagaiez mamitutako arkitektura kulturala. Sozietate kooperatiboak zera dira: edozein eragile ekonomikok behar duen efikaziaren printzipioa giza baloreekin uztartzen saiatu diren eraikin modernoak.

AKEn egituratze sinboliko, kultural, ideologiko eta identitarioa aztertzeke, Modernitatearen berezko egituratze sinbolikoa aztertu dut lehendabizi. Izan ere, Arrasateko Kooperatiba Esperientzia mundu zabalago horren parte da, eta testuinguru makro-soziologiko/kultural horren eta beronek izandako eboluzioaren parte. Ezin da ulertu AKEn gertatutakoa, begiratu ireki eta parte deneko Mendebaldeko munduari sakon samar begiratu barik.

Gainera, Arrasateko mugimendu kooperatiboaren azterketak zuzen garamatza Modernitateari buruzko gogoetara. Izan ere, kooperatibek bere egiten dute Modernitatearen berezko tentsioa, Modernitatea ulertzen badugu, behinik behin, Max Weberren ekarpenaren haritik: arrazionaltasun formalaren (giza ekintzaren helburua eraginkortasuna lortzea da) eta balore-arrazionaltasunaren (giza ekintzari zentzua ematen dio bigarren honek, berau azken zergatiaz eta zertarakoez hornitzen du) artekoa. Tentsio horretan arreta berezia jarri duen pentsamendu filosofiko-soziologikoa aztertu dut: Max Weber-ekin hasi, Frankfurt Eskolarekin jarraitu, eta Habermas-ekin amaitzen den pentsamendu ildo.

Pentsamendu-hari horrek Modernitate kapitalistaren kritikara eroan gaitu, eta bere egituratze sinboliko berezia analizatzera. Ondoren, jorratutako diagnostiko kritikoa zelan buelta eman, Mendebaldearen patologiei zein sendabelarrekin aurre egin, horixe landu dut hurrengo pausoan. Aterabidea aurkitzeko sendabelar orokorrak lehenik eta behin, enpresari lotutakoak gero, arrazoi instrumentalaren bihotzean *zentzu-geziak* sartu nahian ari direnena. Eta azkenik, kooperatibismoaren analisi teorikoa egin dut.

## **b) Lurralde enpirikoa**

AKEn identitate kooperatiboaren sorrera, bilakaera eta gaurko egoera aztertu ditut, lan teorikoa egin eta gero. Langintza horretarako, kooperatibistekin eginiko eztabaida-taldeak eta elkarrizketa sakonak erabili ditut material gisa. Modu horretan, beren unibertso sinbolikoan murgildu naiz, bi talde bereiziz: batetik, Sortzaileak (duela 50 urte kooperatibak sortu zituzten hiru lider handiak. Diskurtso-analisi hori gaztelaniaz egin da); eta ondoren, Bidegileak eta Gaurko Protagonistak; hots, bidean protagonista garrantzitsu (izan) direnen diskurtsoak aztertu ditut. Beraz, goi mailako kooperatibisten ekarpenak baliatu ditut ikerkuntza honetarako.

## **c) Lurralde esplikatiboa**

Kooperatibistekin izandako solasaldiek nolabaiteko zentzu- eta identitate-krisi bat diagnostikatzera eroan naute. Batzuetan esplizitua eta sarri latentea den ondoeza. Lanaren azken atalean, diagnostiko hori sakonago azaltzen eta horren arrazoiak bilatzen saiatu naiz.

Gainera, etorkizunari begirako proposamena landu gura izan dut: zer egin kooperatibismoak etorkizuneko desafio latzei aurre egiteko beharrezkoa duen identitatea trinkotu dadin eta euskal kooperatibismoak behar duen berreraikitze sinboliko-kulturala gauzatu dadin (puntako aktore izan dadin irekitzen ari den fase historiko berrian).

Galdera garrantzitsua da, izan ere, globalizazio garaian osagai kultural eta identitarioek sekulako garrantzia hartu baitute erakundeen munduan (ondotxo dakite hori “ukiezinen” garrantziaz mintzo diren multinazionalak eta korporazio globalek). Beraz, batetik, kooperatiben biziraupen ekonomikorako garrantzitsua den aspektuaz ari gara, eta, bestetik, berebiziko auzia da; izan ere, ekonomia balore humanistekin uztartu gura duten esperientzia sozialek arnasa behar dute, euren “identitate eraldatzailea” globalizazioaren erruberepean txikituta gera ez dadin. Kooperatibei bereizgarritasuna, kalitate etikoa eta indar enpresariala ematen dien dimentsioaz ari gara.

## ERRONKARI ETA ANSOKO TOPONIMIAZ

**Tesiaren egilea:** Juan Karlos Lopez-Mugartza Iriarte

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Hizkuntzalaritza eta euskal ikasketak

**Tesi-zuzendaria:** Henrike Knörr Borrás

**Tesiaren laburpena:**

Leku izenak aroen eta ohituren arabera aldatzen dira, herriaren arimaren sinesmen mistikoak nahiz pragmatikoak ezagutzeko aukera ematen digute eta, horregatik, leku izenen jitea ikertzen duen hizkuntzalaritzaren alorra psikologia-rekin, etnografiarekin, antropologiarekin eta soziologiarekin lotu ohi dute adituek (cf. Dauzat 1971; Moreu-Rey 1982). Toponimiaren alde psiko-sozial edota psiko-afektibo hau oso agerian gelditzen da gure artean. Herri minorizatueta interes handiko gaia dugu toponimia, tokian tokiko hizkuntzen hatzak argi eta garbi gorde direlako. Jakina, honek berebiziko garrantzia hartzen du galdu den hizkuntza baten kasuan, gure iker eremuaren kasuan bezala, hatz horiek hil den hizkuntzaren aztarna bizi bakarrak baitira.

Beraz, toponimiaren ikerketa gauzatzeko unean orain arte aipatutako aldagarri psikologiko eta soziologiko horiek guztiak kontuan hartu beharko ditugu, eta ez bakarrik hizkuntzalaritzaren barnekoak. Izan ere, egungo aditu gehienek (cf. Querol 1995) metodologiaren alorrean jokaera epistemologiko esplizituki irekiak defendatzen dituzte, eta tesi honetan bide honi estuki jarraiki zaio, toponimia guztiz zientzia berezia eta anitza baita; gainera, ikertzen duen gaiak era askotako informazioa ematen du eta, hein berean, informazio hori berreskuratzeko bideak anitzak dira, abiapuntu eta xede guztiz kontrajarriekin.

Tesi honen kasuan, abiapuntua begi bistako hipotesi bat izan da: Erronkaribarko, Zuberoako eta inguruko lurra erromatarren garaiko Euskal Herri zaharraren erdigunean zeudela. Orduko euskararen bihotzean zeudela. Tesiaren xedea, berriz, ondoko hau izan da: erakustea lehenagoko bizitasun hark bere aztarna utzi duela egungo garaietan eta ez bakarrik oraindik bizirik dagoen lekuetan (Zuberoan), baizik eta baita euskara galdu duen tokian ere (Anson).

Erronkaribarko herri guztiak eta Anso ibarreko Anso hiria izan ziren tesi honen inkesta guneak. Zortzi herri orotara: Bidankoze, Burgi, Erronkari, Garde, Izaba, Urzainki, Uztarroze eta Anso. Larrainen, Santa Grazin, Barétous ibarrean eta Aspe ibarrean ez dira inkestak egin –ikerketaren eremutik at gelditzen zirelako–, baina bai, ordea, elkarrizketak egin dira hango informatzaileekin.

Erronkaribarko eta Anso Ibarreko toponimiaren azterketak erakusten duen bezala, herri eta kultura anitzen bilgunea izan da Nafarroako ekialdeko muga.

Herri horien behar komunikatiboak antzekoak ziren arren, hainbat hizkuntza erabili zituzten bakoitzaren beharrak asetzeko: latinetiko bi hizkuntza (gaskoiera eta nafar-aragoiera) eta euskararen bi euskalki (erronkaria eta zuberera).

Euskara oraindik bizirik dago Ansoko toponimian (aztertu diren leku izenen %23 euskaratikoak edo euskarak eragindakoak dira), eta, ordainez, nafar-aragoiera bizirik dago Erronkaribarko toponimian. Lur horietako toponimiaren azterketatik ondorioztatzen denez, Anso ibarrean Behe Erdi Aroan erabiltzen zen euskarak inguruko euskaren ezaugarri semantiko eta morfologiko berberak ez, baina oso antzekoak izanen zituzkeen. Orobat, erronkarierarekin antzekotasun fonetikoak izanen zituen azentuari eta tinbreari zegokienez.

Hala eta guztiz ere, ikusteke dago ea erronkaria horren urrunkor egin duten ezaugarri bereizleak Anson bertan ere gertatzen ote ziren. Ez dirudi hala denik, ordea. Alde batetik, ez dago erlazio hori agirien bidez baieztatzeko modurik, eta, bestetik, erronkarieraren garapen bokalikoak, sabaikaritze bereziak eta asimilazioak oso bizkor gertatu ziren. Asimilazioari dagokionez, zubereraz ere maiztasun handiz gertatzen den arren, ez da heltzen erronkarieraz heltzen den lekuetara, askoz ere bizitasun handiagokoa baita Erronkarin. Zail egiten zaigu onartzea garapen horiek guztiak gertatzen zirela hiltzeaz zegoen XVI. mendeko Ansoko euskaraz.

Dena den, toponimoek ematen diguten informazioa kontuan harturik, argi eta garbi ikusten da Erronkariko eta Ansoko toponimoak, hango euskarak, iturri bakar batetik eta enbor beretik atera zirela. Izan ere, morfologiak eta atzizkien eta oinarri lexikoen azterketak erakusten digutenez, batzuen eta besteen jokabideak oso antzekoak ziren. Horrek esan nahi bide du frankoen menperakuntzaren eta Nafarroako eta Aragoiko erreinuen sorreraren eta indartzearen urteak gertatu arte, bi ibar horien arteko erlazioa oso estua izan zela, eta, orduan bai, aski ziur, antzeko euskara erabiliko zuketela.

# HIZKUNTZAREN ERABILERA EMAKUMEEN ETA GIZONEN ARTEKO HARREMANETAN: EGUNEROKO TESTUINGURUAK ETA TESTUINGURU JUDIZIALAK

**Tesiaren egilea:** Garbiñe Ortiz Anzola

**Unibertsitatea:** Euskal Herriko Unibertsitatea

**Saila:** Gizarte-Psikologia eta Portaera-Zientzien Metodologia

**Tesi-zuzendaria:** Jose F. Valencia Garate

**Tesiaren laburpena:**

Gizarte-psikologiaren jakintza-alorretik egindako lan honetan, hizkuntzaren erabilerari heltzen zaio, emakumeen eta gizonen arteko desberdintasuna iraunarazteko eta gizartean zabaltzeko tresna gisa aztertuta. Genero-estereotipoek desberdintasuna justifikatzen dute eta hizkuntzaren bitartez hedatzen dira komunikazio sozialean. Horrela, estereotipoak egonkor iraute horretan hizkuntzak nola laguntzen duen aztertzen da ikerketa-lan honetan. Izan ere, errealitatea zer den eta nolakoa den azaltzeko eta ezagutza partekatua sortzeko ahalmena du hizkuntzak.

Hizkuntzaren izate soziala eta intentzionala abiapuntu hartuta, bizitza soziala hobeto ulertzeko hizkuntzak ematen duen aukerari buruz jardun da, hizkuntzaren erabileraren eta pentsamendu sozialaren arteko lotura aintzat hartuz. Helburua da azaltzea genero-estereotipoak hizkuntzaren erabileran nola ezagutarazten diren eta, ondorioz, hedatutako ezagutza nola bihurtzen diren.

Helburu horrekin, bost ikerketa enpiriko egin dira. Horietariko hiru ikerketatan, *eguneroko testuinguruetan* topa daitezkeen egoerak erabili dira estimulu gisa; nortasun-bereizgarrietan oinarritutako estereotipoak, genero-rola lotutako estereotipoak eta desiragarritasun sozialarekin lotutako estereotipoak barneratzen dituzten egoerak, hain zuzen, horiek komunikatzeko erabiltzen den hizkuntza aztertzeko asmoz. Beste bi ikerketak *testuinguru judizialean* kokatzen dira; batean, laborategian sortutako epaiketa-egoera erabili da, eta bestean, benetako epaiketarako agiriak aztertu dira. Hizkuntzak akusatuen portaerari buruz zer nolako azalpenak barneratzen dituen aztertzea da azken ikerketa hauen helburua: akusatuaren generoaren arabera eta lekukoaren helburuen arabera, alde egitea ala aurka egitea.

Estereotipoak iraunaraztean hizkuntzak duen zeresanaz jardutean, azterketa pragmatikoa erabiltzen da. Hain zuzen, hizkuntzaren egiturazko ezaugarriak (hizkuntzaren abstrakzio mailari) eta horien erabilerari lotzen zaie analisia, ez diskurtsoaren esanahiari edo edukiari. Horrela, abstrakzio mailan ezberdinak diren lau hizkuntza-kategorien erabilera erlatiboa aztertzen da: ekintza-aditz deskribatzaileak (*ikusitako hitz egin*), ekintza-aditz interpretatzaileak (*mehatxatu, lagundu*), egoera-aditzak (*miretsi, gorrotatu*) eta adjektiboak (*koldarra, ausarta*). Ikerkuntzak egiaztatu duenez, estereotipoarekin bat egiten duten portaerak era abstraktuan

deskribatzen dira, eta horrek alde zuzeneko igurikimena indartzen du. Izan ere, hizkuntza abstraktuan deskribatutako portaerak (*Ane koldarra da*) egonkorak, iraunkorak, berriro gertatzeko aukera handikoak direla eta aktorea deskribatzen dutela hautematen da. Estereotipoarekin bat ez datozen portaerak, aldiz, era konkretuan deskribatzeko joera dago, ekintza isolatuak direla aditzera emanaz. Hizkuntza konkretuan deskribatutakoak (*Anek Jon bultzatu du*) gertaera isolatuaren, zehatzaren irudia hartzen du, eta, testuinguruari lotuta interpretatzen denez gero, ez du estereotipo-moldea hartzen. Beraz, alde zuzeneko uste edo igurikimenez gertaera deskribatzeko hautatzen den hizkuntza baldintzatzen dute, eta hizkuntzaren erabilera horrek gertaerari buruzko interpretazioa ere baldintzatzen du, zikloa osatuz.

Esanahia eman edo sortzeaz gain, hizkuntzaren bidez zerbait gehiago ere egiten dugu: besteekin ditugun harremanak maneiatzen ditugu, errealitatea, gertaerak edo portaerak azaltzen ditugu, eta horien zergatiak eman eta denboran eta espazioan kokatzen ditugu. Alde horretatik, hizkuntza erabiltzeak ondorioak ditu pertsonen eta taldeen arteko harremanetan, eta oro har, mundu sozialean, errealitateaz dugun irudikapena ez baita erabiltzen dugun hizkuntzatik askea.

